

# Iñigo Urkullu

## «Aurrera begira, akordioek ez dute itxiak izan behar, ezta globalak ere»

### EAJren lehendakari gaia

Urkullu ziur da igandeko bozen osteko jokalekua duela lau urtekoa baino «irekiagoa» izango dela eta aukera gehiago egongo direla abertzaleen artean akordioak egiteko; kezkatuta dago sozialistekin.

Jokin Sagarazu Tolosa

Kanpainan eten bat egin, eta hotel bateko gela batean hartu du BERRIA Iñigo Urkulluk (Alonsotegi, Bizkaia, 1961). Larunbat goiza da, eta Tolosan (Gipuzkoa) egingo du ekitaldia EAJren lehendakari gaia. Eroso eta lasai nabari zaio. **Sutsuago aritu zinen aurreko kanpainan: akaso, gehiago zenuelako jokoan?** Egia da duela lau urteko egoera ezberdina zela eta agian sutsuago aritu nintzela. Krisi egoera askoz ere txarragoa zen, nahiz eta egun ere bizi dugun. Eta oposiziotik gentozen, hauteskundeak irabazi arren. Orain, ezberdina da. Lehendakaria izan naiz, eta egoera beste bat da ekonomikoki ere. **Otegiaren inhabilitazioak mesede egiten dizu?** Ez dakit zergatik esaten den hori. Proiektuak eskaintzeko dira kanpainak. Arnaldok [Otegi] berak esan zuen hau ez dela pertsonen arteko lehia bat, proiektuen artekoa baizik. **Eta zer iruditzen zaizu auzitegiaren erabakia?** Aurretik bazekien zein zen bere egoera. Arnaldok berak esan zuen onartuko zituela epaitegiaren erabakia, eta hala egin du. Gainera, badago kanpainan. Ni ez nago erosoago batekin edo baten aurka. Garrantzitsuena da herritarrek igandean proiektuak bozkatuko dituztela. **PSE zorrotzagoa izan daiteke zuekin, legebiltzarrean EH Bildu eta Elkarrekin Podemosekin gehiago osa ditzakeelako?** Bueno... Nik uste dut ez direla gauza bera Eusko Legebiltzarrean alderdi sozialistarekin ditugun akordioak eta udal eta foru aldundietan ditugunak. Azpimarratu nahi dut sozialistekin egin ditugula akordioak beste batzuekin ezin izan ditugulako egin. **Horrek esan nahi du beste bide bat saiatu nahi duzuela orain?**

Gu beti ahalegindu gara denekin. Legealdia hasi zenean, lehenengo hitz egin genuen EH Bildurekin. Baina Laura Mintegik esan zidan beraiantzat ezinezkoa zela, eredu ekonomikoak eta sozialak guttiz ezberdinak zirelako. Garai hartan, gainera, Bildu Gipuzkoako aldundian zegoen, eta irudi jakin bat eman nahi zuten. Hainbat gai erabili zituzten: erraustegia eta zaborren bilketa, azpiegiturak... Eta auzitara jo zuten, gainera. Horrek guztiak baldintzatu zituen gure arteko harremanak, eta sozialistekin akordioak egitea lehenetsi genuen.

**Konpromiso idatzia edo ahozkoa duzue PSErekin?** Legebiltzarrean erakutsi dugu zertan oinarritzen den gure akordioa. Nahiz eta alor batzuetan bat egin, beste batzuetan ez gaude ados, eta oposizio lana egin digute. Bizitza politiko aberatsa izan da azken lau urteetakoak, akordioak ez direlako izan itxiak, ezta globalak ere. Eta iruditzen zaigu hori dela bidea aurrera begira. **Kanpainan, zuengandik urrundu nahian bezala ikusten da PSE. Hauteskundeetako legebiltzarreko estrategia bat da bakarrik?** Alderdi sozialistak tentazioa izan dezake gurekiko jarrera gogortzeko, bere diskurtsoa baldintzatu ikus dezakeela-

ko Elkarrekin Podemosen alde. Orain arte hirugarren indarra izan da, eta badirudi laugarrena izan daitekeela. Horrek baldintza dezake bere estrategia. Baina igandeko emaitzen arabera izango da hori. **Eta kezkatzen zaitu horrek?** Alor ekonomikoan konpromiso irmoak ditugu hiru aldundietan eta udal ugarritan. Baina kezkatzen nau, bai, autogobernuaren garatze bideari eta garatze mailari buruzko diskurtsoetan zer entzuten ari naizen Euskadiko alderdi sozialistaren aldetik. Horrek kezkatu egiten nau. **Otegi proposatu izan du alor horretan eta beste askotan akordioak egitea EAJ, Elkarrekin Podemos eta EH Bilduren artean. Uste duzu benetan ari dela ala EAJn kontrasesanak sortzeko estrategia bat dela?** Ez dut ukatzen borondatez egingadako denik, baina soilik borondatez egingadako denik ere ez dut uste. Udal eta foru hauteskundeetan emaitzen ondoren, EH Bilduk bere analisia egingo zuen. Lau urte egon ziren agintean instituzio garrantzitsuetan, eta duela bi urteko emaitzek, agian, behartu egin dute EH Bildu hausnarketa

bat egitera, bere eredu ekonomiko eta sozialari buruz eta baita politikan erantzukizunak garatzeko orduan izan behar duen ereduari buruz ere.

**Baina egingarriak ikusten dituzu hiruren arteko akordioak?** Duela lau urte Bilduri eredu ekonomiko eta sozial bat planteatu genion bezala, orain gauza bera egingo dugu. Gure erronkak eta planteamenduak azalduko dizkiegu, errealmotik abiatuta, ditugun baliabideak kontuan hartuta, eta zein aukera eta zein muga ditugun azalduz. EH Bilduk hori guztia aztertzeko borondatea izango balu, baluke tarte bat gurekin partekatzen. Igandetik aurrera, gu prest egongo gara hitz egiteko, egungo argazkitik beste argazki batera pasatzeko bidea adosteko: lehentasunak, abiadurak... Baina errealismoz.

**Agirre lehendakariaren irudia erabili zuen EH Bilduk duela lau urte, eta kanpaina honetan, Ibarretxearena. Zein asmorekin, zure ustez?**

Nire barruetan ez du ezer mugitzen EH Bilduk hori egiteak. Agirre lehendakariaren aniztasunaren aldeko elkarlanerako apustua islatzen zuen oso garai latz batean, eta errealismoa. Eta Ibarretxe aipatzea... Hori ez da oraingo kontu bat. Duela zortzi bat urte ere aipatu zuten, EAJren barruan bazterrak nahasteko. Ezker abertzaleak jai dauka uste badu ni horrekin iraindu egingo naitela edo horrekin urdurijarriko nauela. Nik argi baino argiago daukat Ibarretxe lehendakaria non dagoen, zer pentsatzen duen EAJri buruz eta



«Beste batzuekin egin ezin izan ditugulako egin ditugu akordioak sozialistekin azkenengo lau urteetan»

«Euskadi nazioa dela onartzeak ez du balio ez bada afortzen alde bikotasuna eta, beraz, erabakitzeko esku bidea»

niri buruz [Ibarretxe] bidalitako babes mezu bat erakutsi dio kazetariari. Esanda dago...

**Zertan ikusten duzu aliatu gisa Elkarrekin Podemos datorren legegintzaldian?**

Pentsaera ezberdinak dituzte Elkarrekin Podemos osatzen duten taldeek, eta haren boto-emileek ere arrazoi ezberdinak dituzte. Oso modu orokorrean erakusten ari gara batzuk eta besteok borondatea dugula komunean ditu-



gun alorretan batera lan egiteko – autogobernuaren gaian, esaterako –, baina beste kontu bat da lurra zapaltzea: zehaztasunak. Eta hor oraindik ez dut Elkarrekin Podemos ikusten. Niretzat, ziurgabetasun handiko proiektu bat da, norabide argirik ez duena. Ez dut elementurik, beraz, ezertan aliatu izan gaitzkeela esateko. Hitz potoloez harago, ez dut ikusten biderik egin dezakegunik batera. Gertuago ikusten ditut PSE-tik eta EH Bildutik, eta gertuago ikusten dut haiekin ados jartzea. Gurekin, gaur-gaurkoz, ez.

**Autogobernu handiagoa nahi duzu, eta nazio aitortza, estatutu berri batean. Horrekin ados dago PSE. Baina ez erabakitze eskubidearekin. Lehen urrats gisa, konformatuko zinateke estatutu berri batekin?**

Euskadiko alderdi sozialista Espainiakoaren menpe dago. Arestian nortasun propioa izan zuen, eta, nortasun hori garatzeko bidean, beste planteamendu batzuk egiten zituen autogobernari buruz. Nazio hitza aitortzea ondo dago, baina nola uzartzen da hori Espainiarako duten estatu ereduari? Euskadi nazioa dela aitortzeak ez du balio ez bada aitortzen alde bikotasuna.

**Eta erabakitze eskubidea? Zeri buruz?**

Lotura zuzena dauka alde bikotasunarekin. Printzipio legalak uzartu behar dira printzipio demokratikoekin. Txanpon bereko aurpegiak izan daitezke eta dira. Printzipio demokratiko bat joratu nahi dugunok –galdeketa, guk adosten dugun galdera bati buruzkoa–, ez dugu zertan zapuztu nahi izan legalitate printzipioa; legearen barruan egin nahi eta ahal dugu hori. Posible izan da beste errealitate batzuetan.

**Oker bat izan zen aurreko lege-gintzaldian galdeketa egiteko data bat jarri izana?**

Gobernu programan ez genuen datarik jarri.

**Baina hauteskunde programan azaltzen da: «Prozesuaren emaitza, 2015. urtean, jendeari aurkeztuko zaio, eta horri buruzko erreferenduma egingo da».**

Bueno. Baina hori ez da norberak bakarrik egin dezakeen kontu bat; horretarako, ados jartzeko planteamendu bat egin genuen, eta legealdi honetan hainbat lan egin dira legebiltzarrean, baina ez dugu akordiorik lortu. Eta nik espero nuen Espainiak esku artean

duen estatu arazoari helduko zio. Erraza zeukan, gehengo osoa zuelako eta bere eskuinean beste inor ez zuelako. Horizen nirepentsamendua. Dena den, uste dut gaia hor dagoela eta lau urteotan asko egin dugula aurrera, heziketa mailan.

**Ekainean, Jonan Fernandez Bake eta Bizikidetzak idazkariak egin zuen autokritika. Ertzaintzan tortura eragozteko neurriak berandu hartu zirela aitortu zuen, gehiago egin zitekeela torturak eragozteko. Autokritika hori ez luke lehendakariak egin behar?**

Egin dut. Bake idazkariak egin badu, lehendakariak egin du. Nik izendatu dudana eta nire menpean dagoen idazkaritza bat da. Ez dut uste guk bezainbesteko autokritika egin duenik inork; eta gobernu gisa, gainera. Egin dugu biktimen alorrean, torturen alorrean, memoriaren inguruan... Uste dut oinarri bat utzi dugula; ez bakarrik aitortza eta autokritika egitean,

## MOTZEAN

**Zein hizkuntzatan bizi zara?**

Euskaraz, ebean eta Jauriritzako lankideekin.

**Baduzu gertu langaberen bat?** Etxean, bi pertsona.

**Garraio publikoa erabiltzen duzu?** Bai; normalean, tranbia.

**Aurreko astean, adibidez.**

**Zein liburu ari zara irakurtzen?** Historian zehar izan diren gertakizun nagusiei buruzko bat. Udán, *Nevadako Egunak* irakurri nuen.

**Alfonso Alonsok ETBko debatan oparitu zizun Artur Masen memoriak irakurriko dituzu?** Ez naiz memoriazalea.

**Zein izan beharko luke Euskal Herriko ereserki nazionala?** *Gora eta gora.*



Galdera laburren bideoa ikusteko, bisitatu webgune hau: [www.berria.eus](http://www.berria.eus)

baita neurriak bideratzeko planteamenduak egiteko orduan ere. Herri honek bizi izan duenaren aurrean, denok egin behar dugu autokritika. Batzuek, agian, beste batzuek baino gehiago alor edo gai batzuetan. Eta Jauriritzak ere egin du eta egin behar du. Guk ez dugu, agian, aurreko gobernuak izan zuten erantzukizun bera, baina gobernu guztien izenean egin dugu. Nik ez dut batere problemarik horretarako.

**Alor ekonomikoari eta sozialari buruz, kanpainen asko ari zara konparatzen Euskal Autonomia Erkidegoko egoera Espainiakoarekin. Konparazioak mesede egiten dizulako?**

Hori egiten badut, beste alderdiek horretara behartzen nautelako egiten dut: alderdi popularrak eta alderdi sozialistak bereziki. Nik, zalantzarik gabe, Europan jartzen dut ipilua, eta une oro saiatzen naiz hara begiratzen. Kontuan hartu behar da hainbat alorretan guk garelako erreferentia Europan:

osasunean, hezkuntzan, gizarte babeseko politiketan...

**Krisiak gogor jotzen du oraindik, eta egoera zailtzen ari da epe luze eta 45 urtetik gorako langabeentzat. Diru sarrerak bermatzeko laguntzetatik haratago, zer?**

Gure ustez, unea da politika batzuk berrikusteko. Berziki, langileen espezializazioaren eta formazioaren alorrean. Epe luze langabeen eta 45 urtetik gorako enkasuan, ahalegin berezi bat egin behar dugu lan mota berri batzuetan hezteko. Enpresekin egin behar dugu hori, eta Lanbidek izan behar du zubi lan hori egiteko ardura. Hori izan behar da Lanbideren helburua: orientazioa, heziketa eta enpresekin birtartekaritza lana egitea. Gazteen kasuan, berriz, hezkuntza sistema egokitzeko ari gara egungo beharrezanetara, eta ahalegin berezia egin behar dugu kontratu motekin, bekadun izandakoek kontratu duin bat izan dezaten.

